

ZIHURKO Aseguru Artekaritzak **Zihurko Profesionala** sail berezia sortu du hainbat negozio-arlotako teknikarien partaidetzarekin, enpresen, erakundeen eta profesionalen Erantzukizun Zibil Profesionalaren (Hutsegiteak eta Ez-egiteak) estaldurari loturiko aholkularitzan lan egiteko.

Erantzukizun Zibil Profesionaleko Asegurua (Hutsegiteak & Ez-egiteak) baliabide ezin hobe da zure gaitasuna eta ondarea arrisku orotatik babesteko.

Jarduera profesionalak konpromiso handia eskatzen du bezeroarenganako, eta egoera batzuetan profesionalak erantzun behar izaten du. Hori dela-eta, arrisku-mota honen estaldurak espezializazio-maila handia eskatzen du, eta gure sailak espezializazio hori eskaintzen die jarduera profesionalari.

Zihurko Profesionala, beraz, era honetako aholkularitzan lan egiten duen unitate berezi bat da, eta elkarlanean dihardu arrisku mota honen estalduran atzerrian nagusi diren aseguru-erakundeekin.

Zernahi ere den aseguratu beharreko jarduera, Zihurko Profesionalak zuretzat lan egingo du, arriskuak zorrotz aztertuz eta irtenbide egokienak bilatuz.

Zer eskaintzen du Zihurko Profesionalak?

Zihurko Profesionalak bezero bakoitzak behar duen soluzio egokiena eskaintzen du:

- ☆ Aholkularitza arriskuen kudeaketan.
- ☆ Aseguru-programa espezifikoak, bezeroaren berezitasunen arabera.
- ☆ Erantzukizun Profesionalaren aseguruan atzerrian nagusi diren erakundeekin negoziatutako produktu bereziak.
- ☆ Aholkularitza ezbeharren kudeaketan.

Zihurko Profesionalaren bezeroak:

Kabinetek, Bulegoak, Aholkularitza Zerbitzuak, Legelariak, Aholkulari Fiskalak eta Kontableak, Mota guztietako Ingeniaritzak, Informatika, Segurtasuna, ABLE, Ingurumena, Lan-arriskuen prebentzioa, Segurtasun eta Osasun Koordinazioa, eta oro har, Erantzukizun Zibil Profesionaleko estaldura (derrigorrezkoa edo ez) behar duen edozein jarduera profesional.

ZIHURKO Aseguru Artekaritzak beren lurraldeetan nagusi diren bi finantza-entitateen partaidetza du: **Kutxa** eta **Vital Kutxa**. Bezeroen arretarako bulegoak Donostian eta Gasteizen daude.

ZIHURKO elkartea 1987an sortu zen, eta eskarmentu handia du entzute handiko entitateen eta Erakunde Publikoen aseguruan.

Zihurko Profesionala sortuz, beste urrats bat egin dugu gure bezeroen arretan, eta zerbitzu egokiena eskaini nahi diegu beren ondarea hutsegiteek edo ez-egiteek eragin ditzaketan kalteetatik babestu nahi duten bezeroei.



ZIHURKO Aseguru Artekaritza kalitate goreneko zerbitzuarekin lotu izan da beti, eta alde horretatik, Euskadiko lehen aseguru artekaritza izan da 2000. urtean bere prozesu guztientzat **AENOR** elkartearen ISO 9001 ziurtagiria lortzen.



Para más información:

Zihurko Profesionala

Pilotegi bidea 2, 1. - 101. Buleg.
20018 Donostia
☎ 943 317322 - 📠 943 317879

Zabalgana etorbidea 1, 2. - 5. Buleg.
01015 Gasteiz
☎ 945 140521 - 📠 945 149061

Karlos III etorbidea 36
31003 Iruñea
☎ 635 52 1685

zihurko@zihurko.es